

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

ALKATETZA, ERAKUNDE HARREMANAK ETA BERDINTASUNAREN SAILA

Euskara Zerbitzua

Haur eta gazte literaturaren arloan euskarara egindako itzulpenik onenen sarien oinarriak. Vitoria-Gasteizko Udala. 2026ko deialdia

2026ko otsailaren 27an egindako bilkuran Tokiko Gobernu Batzarrak onetsi egin zituen haur eta gazte literaturaren alorrean euskarara egindako itzulpenik hoberenak –2025eko legezko gordailua dutenak– saritzeko Vitoria-Gasteiz sarietarako deialdiaren oinarriak. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta lege horren araudia onetsi zuen uztailearen 21eko 887/2006 Errege Dekretuan arautuaren ildotik, eta dirulaguntzak arautzeko ordenantza nagusian arautuaren ildotik, argitara ematen dira, denek izan dezaten horien berri.

Vitoria-Gasteizen, 2026ko martxoaren 4an

Alkatezaren, Erakunde Harremanen eta Berdintasun Saileko zinegotzi ordezkaria
ANA ROSA LOPEZ DE URALDE GOMEZ

Sarrera

2023ko apirilaren 21eko ohiko saioan Vitoria-Gasteizko Udalaren udalbatzak onetsitako dirulaguntzen ordenantza orokorrak arautzen ditu honako oinarri hauek. Uztailearen 28ko ALHAOn –88. zenbakia– argitaratu zen ordenantza, eta urriaren 1ean sartu zen indarrean. Udalaren webgunean kontsulta daiteke –www.vitoria-gasteiz.org/dirulaguntzak–, baita herritarrei laguntzeko bulegoetan ere. Deialdi honetara aurkeztu nahi dutenek ordenantzara jo beharko dute oinarri hauetan arautzen ez denaren berri izateko.

1. Dirulaguntzen ildoak

Euskararen Plan Nagusiko dirulaguntzak – Haur eta gazte literaturaren arloan euskarara egindako itzulpenik onenen sariak.

Dirulaguntza deialdi hau Vitoria-Gasteizko Udalaren 2025-2027 Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren jaso dago.

Dirulaguntza honen helburua herritarren eguneroko bizitzaren esparru eta arlo guztietan euskararen erabilera bultzatuko duten ekimenak sustatzea da.

2. Deialdiaren xedea

2025. urteko lege-gordailua izan eta haur eta gazte literaturaren alorrean euskaraz argitaratutako itzulpenik onenak saritzeko emango diren Vitoria-Gasteiz sariak arautzea du xede deialdiak.

Euskarara egindako itzulpenik onenen egileen lana saritu nahi da, literatura generoa edozein dela ere. Ez da onartuko giza eskubideen urraketaren apologia egiten duten obren itzulpenik.

3. Sarien zer-nolakoak

Sari bana emango da, bi sail hauetan:

I. Haur literatura (6-12 urte): diploma eta 9.000,00 euro.

II. Gazte literatura (13-18 urte): diploma eta 9.000,00 euro.

Sariak ematen direnean indarrean dauden araudietan finkatutako zerga-atxikipean egingo zaizkie diru-kopuru horiei. Sari bat bera ezingo da hainbaten artean banatu.

Sari ekonomikoaz gain, saritutako itzulpenen sorta bat erosiko da, aurrekontuaren mugen barruan, Vitoria-Gasteizko gizarte etxeetako liburutegietara eta ikastetxeetara banatzeko, irakurtzeko zaletasuna bultzatze aldera.

4. Baliabide ekonomikoak

Ematen diren sariak Alkatzaren, Erakunde Harremanen eta Berdintasunaren Sailaren 2026ko ekitaldiko aurrekontuetako 2026/0171.3351.48005 partidan jasotako aurrekontu-kredituaren kontura joango dira; gehienez 18.000,00 euro baliatu ahal izango dira horretarako.

5. Aurkezteko eta izapideak egiteko epea

Eskabideak aurkezteko epea 20 egun baliodunekoa izango da, deialdiaren oinarrien laburpena ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik.

Eskabideak bide hauen bidez aurkeztu ahal izango dira:

– Vitoria-Gasteizko Udaleko herritarrei laguntzeko bulegoetan.

– Posta-bulegoetan, gutun-azal batean, Euskara Zerbitzuari zuzendua: Frai Zacarias Martinez kalea, 2. 01001. Vitoria-Gasteiz.

– Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera legez aurreikusitako gainerako moduetan.

6. Sariak emateko prozedura

Alkatzaren, Erakunde Harremanen eta Berdintasunaren Saileko Euskara Zerbitzuak kudeatuko du 2026. urteko deialdia.

Hamargarren oinarrian izendatzen den epaimahaiak ebatziko ditu sariak, aurkezten diren lanak ebaluatu eta dagokion akta egin ondoren.

Euskara Zerbitzuko buruak sariak emateko proposamenarekin txosten bat aurkeztuko dio Tokiko Gobernu Batzarrari, bera baita sariak emateko proposamena onartzeko eskumena duen organoa.

7. Aurkezteko betebeharrak

a) Edozein hizkuntzatik euskarara egindako haur eta gazte literaturaren alorreko itzulpenekin, 2025. urteko legezko gordailua dutenak, lehiatu ahal izango da Vitoria-Gasteiz sarietarako.

b) Itzulpena egin eta argitaratzeko eskatzen diren lege-betekizun guztiak beteta izan beharko dituzte lehiaketara aurkezten diren lanek.

c) 2025. urtekoa izan beharko du legezko gordailuaren datak.

d) 2024an edo 2025ean sail batean sarituak izan ziren itzultzaileak ezin izango dira sail bereko lehiaketara aurkeztu 2026ko deialdi honetan.

e) Sari hauek bateragarriak dira bai beste erakunde batzuek ematen dituztenekin, bai liburuak euskaratzeko jasotako dirulaguntzekin.

f) Ez da onartuko enpresek egindako itzulpen-lanik.

8. Parte hartzeko debekua

Pertsona edo erakunde hauek ezin izango dute parte hartu:

- Berdintasunerako eskubidea eta sexuagatiko eta/edo generoagatiko diskriminaziorik eza urratzeagatik zehapen irmoa jaso dutenak, bide penalean, laborean zein administratiboan.
- Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legean edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan ezarritako betebeharrak betetzen ez dituztenak.
- Sexuagatik eta/edo generoagatik diskriminatzen duten jarduerak sustatzen dituztenak.

9. Eskabideen aurkezpena

Nahi adina lan aurkeztu ahal izango dituzte itzultzaileek modalitate batean zein bestean. Eskabide-orri eredu bakarrean ageri diren datuak bete beharko dira (<https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/eu/17/37/91737.pdf>), orri hori izenpetu eta gutun-azal batean sartu. Horrekin batera, aurkeztutako liburuen eta horien jatorrizkoen ale bana aurkeztu beharko da. Jatorrizko hizkuntzatik itzuli ez bada, bitarteko hizkuntzako bertsioaren ale bat ere erantsi beharko da. Adierazi beharko dute zein sailetara (haurrena edo gazteena) aurkezten duten lan bakoitza.

10. Epaimahaia eta ebaluazio irizpideak

Alkatetzaren, Erakunde Harremanen eta Berdintasunaren Sailaren zinegotzi ordezkariak izendatu duen epaimahaia arduratuko da aurkeztutako literatura itzulpenen kalitatea neurtu eta sariak emateaz. Literatura itzulpengintzaren alorrean nolabaiteko itzala duten bost adituk osatuko dute, eta eskumen osoa izango dute horiek erabakia hartzeko, honako irizpideak aplikatuz:

- Erregistroaren egokitasuna.
- Hizkuntza-fluxuaren naturaltasuna.
- Hizkuntzaren aberastasuna.
- Jatorrizkoaren izaeraren asimilazio maila.
- Literatura-balioak eta hizkuntza literarioaren erabilera.

Idazkari lanetan, ahotsa bai baino botorik emateko eskubiderik gabe, Alkatetzaren, Erakunde Harremanen eta Berdintasunaren Saileko Euskara Zerbitzuko burua arituko da.

Udaleko Alkatetzaren, Erakunde Harremanen eta Berdintasunaren Sailaren zinegotzi ordezkariak, 2026ko otsailaren 11ko erabakiaren bidez, ondoko epaimahaia izendatu du deialdi honetarako:

Epaimahaikideak:

- Karlos Del Olmo Serna.
- Ainara Ruiz Benito.
- Itziar de Blas Fernandez de Gamarra.
- Miren Ibarluzea Santisteban.
- Mario Unamuno Plazaola.

Idazkaritza:

- Euskara Zerbitzuko burua.

Urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23 eta 24. artikuluetan aurreikusitako abstentzio- eta errefusatze-suposizioak aintzat hartu beharko dituzte epaimahaiko kideek.

11. Sariak ematea

Udaleko iragarki-taulan, ALHAOn eta Espainiako dirulaguntzen datu basean argitaratuko da epaimahaiak emandako sarien berri, sarituei jakinarazteaz gain, eta ezingo da hartutako erabakiaren kontra jo.

Sariak (bata nahiz bestea, ala biak) eman gabe ere utzi ahal izango ditu epaimahaiak, aurkeztutako lanek aski kalitaterik ez dutela irizten badio.

Udalak horretarako antolatzen duen ekitaldi ofizialaren ondoren ordainduko zaizkie sariak irabazle suertatzen diren itzultzaileei.

Sariak emateko erabakia Alkatetza, Erakunde Harremanak eta Berdintasun Saileko zinegotzi ordezkariak (Tokiko Gobernu Batzarrak 2025eko maiatzak 16an hartutako eskumenak eskuordetzeari buruzko erabakiaren arabera) hartuko du, 2026ko azaroaren 18a baino lehen.

12. Jabetza intelektual

Saritutako itzulpenen aleak Vitoria-Gasteizko Udalaren esku geratuko dira. Nolanahi ere, saria jasotzeak ez du berekin ekarriko, inolaz ere, itzultzailearen jabetza intelektualari dagozkion eskubideak besteri uztea edo murriztea.